

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa-deialdia egitea 28. Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziaren TS lurzatiari -Forondako ateko 48a– dagokion erregistro-funtsa lehiaketa bidez besterentzeko

Udala da Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean I-5229 erreferentziarekin jasotako funtsaren jabea, zeina udalaren lurzoru ondarearen barruan sartuta baitago, ondare-ondasun gisa; 4. zenbakiko Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, deskribapen eta muga hauek dituelarik:

– 50003 hiri-funtsa. Vitoria-Gasteizko TS hiri lurzattia; 4.399 m² -ko azalera, eta 5.000 m²c ko aprobeixamendua, erabilera global tertziarioan sartzen diren erabilera xehatuaren edozein gauzatzekoa. 28. HBPBaren 0 planoko 1-4 poligonalak mugatzen du.

– Mugak: Iparraldean, espazio libre kalifikazio xehatua duen lurzattia (TN lursailetik bereizten du); hegoaldean, A-42 eta A-43 lurzattietatik bereizten duen espaloia, eta berdegunea; ekialdean, antolatutako eremuaren kanpoko muga osatzen duen espazio librea, 34.633 jatorrizko funtsaren gainerakoa (K1 lurzattia) eta K2 lurzattia; mendebaldean, Forondako atetik bereizten duen espaloia.

– Ez du kargarik.

– Katastro erreferentzia: 55-1469.

2020eko urriaren 9an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea. Oinarrizko prezioa edo lizitazio-tipoa 3.723.300,00 euro da (hiru milioi zazpiehun eta hogeita hiru mila eta hirurehun euro), zergarik gabe, eta lehiatzaileek gora eginez hobetu ahalko dute.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25), alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, herritarrei laguntzeko bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <http://v-g.eus/foronda> helbidean kontsultatu ahalko da.

Proposamenak Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz — aurkeztu beharko dira, 8:30etik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edo postaz, 30 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Postaz igorritik gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu deialdia egiten duen organoak, ez da onartuko proposamena. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direnean proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik bost egun balioduneko epean eratuko da balioespen-batzordea, eta horrek egiaztatuko du gaitasun betekizunak betetzen diren. Halaber, lehiatzaileen proposamenen gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna eta ordua zehaztuko ditu, eta <http://v-g.eus/foronda> helbidean argitaratu egingo da.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta Tokiko Gobernu Batzarriari helaraziko dio esleipen-proposamena hark onets dezan.

Esleipendunak 186.165 euroko bermea jarri beharko du 10 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 13an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE